

[Txotx denboraldia](#)

Otsailean hasiko da sagardotegietara joateko autobus zerbitzua

Kronika - Erredakzioa 2022-01-22 00:00



Otsailetik apirilera bitartean, astebururo irekiko da Hernaniko turismo informazio bulegoa.

Autobus zerbitzuko ordutegiak oraindik ez dira aditzera eman, Loidi eta Altzuetara arteko bidea itxita dagoelako. Horrez gain, otsailean irekiko da turismo informazio puntua eta astebururo egingo dira hiriguneko bisita gidatuak.

Sagardotegietara joateko autobus zerbitzua, otsailaren lehenengo asteburutik aurrera jarriko da martxan, baina oraindik ordutegiak zehaztu gabe daudela jakinarazi du Hernaniko Udalak «Loiditik Altzuetara doan bidea oraindik itxita baitago».

Urtero, autobusa Zinkoeneatik irteten da, eta bueltako geldialdia ere bertan egiten du. Osinagatik egiten duen ibilbidean honako sagardotegiak hartzen ditu: Itxas-Buru, Altzuetara, Goiko Lastola, Iparragirre eta Otsua-Enea.

Aipatu moduan, aurtengo autobus zerbitzuan aldaketak daude, izan ere, duela pare bat aste, urtarrilaren 8ko asteburuan hain zuzen ere, euriteen ondorioz lur-jausiak egon ziren Loiditik Altzuetarako bidean, eta horrek bertako bidea ixtea eragin zuen. Beraz, Loiditik Altzuetarako bideak itxita jarraitzen du eta Lepatxikiko bidea ere itxita mantentzen dela dio Udalak. Altzuetara, Iparragirre eta Elorrabira joateko, Lastaolakoa da bide alternatiboa.

Ondorioz, autobus zerbitzuak eskainiko duen ordutegia, oraindik ez dutela finkatu helarazi du Udalak: «Altzuetako bide hori itxita dagoenez, autobus gidariak ikusi behar du nola moldatzen den ibilbidea osatzeko, eta modu seguru batean bidaiatzeko. Beraz, horren arabera ordutegiak alda daitezke». Hala ere, autobus gidariak ibilbidea osatzen duenean, aurtengo autobus zerbitzuen ordutegiak zeintzuk izango diren aditzera emango da Kronikan.

Autobus zerbitzuaz gain, herritarrentzat eta bisitan etortzen diren sagardozaleentzat turismo informazio puntua irekitzen da txotx denboraldian zehar. Zinkoenean dago postua, eta otsailetik apirilera arteko asteburu guztietan egongo da irekita. Hiriguneko bisita gidatuak ere eskaintzen dira, astebururo, goizeko 11:00etan hasita. Bertan parte hartzeko ez da beharrezkoa izena ematea, baina gomendagarria dela aipatu dute. Beraz, apuntatu nahi duenak, telefono honetara deitu behar du: 943 33 70 28 edo helbide elektronikoko honetara idatzi: turismoa@hernani.eus.

[Kultura Hernani](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.



Egin zaitez Kronikalari!



Erantzun ▼

Istripua izan da A-15

Barrenetxea IV.ak

Antton Telleria bihar,

Iñaki Sanz-Azkue saritua,



Ikusienak



[«Baserriaren jardueraren jarraipena, epe ertain luzean, arriskuan dago»](#)

Kronika - Erredakzioa
ots 16, 00:00

[Astigarraga](#)



[Gizon baten bila dabilta Hernani eta Iruñean](#)

Kronika - Erredakzioa
ots 16, 19:57

[Hernani](#)



[Ander Martin hernaniarra, Alemaniako partidurako deialdian](#)

Kronika - Erredakzioa
ots 16, 18:59

[Hernani](#)



[Hartubol desafioa ikasle eta helduen artean](#)

Kronika - Erredakzioa
ots 17, 00:00

[Hernani](#)



[Istripua izan da A-15 errepidean, Karabel parean](#)

Kronika - Erredakzioa
ots 17, 09:15

[Hernani](#)



[Iñaki Sanz-Azkue saritua, Bizenta Mogel lehiaketan](#)

Kronika - Erredakzioa
ots 16, 00:00

[Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]@kronika.eus](mailto:kronika[ABILDUA]@kronika.eus)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[AIURRI](#)

[ALEA](#)

[AMEZTI](#)

[ANBOTO](#)

[ANTXETA](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[BARREN](#)

[BEGITU](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GEURIA](#)

[GOIENA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[MAXIXATZEN](#)

[NOAUA](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[PLAENTXIA](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)